

Ispilutxo, ispilutxo...

Ile urdinak ikusi zizkidan lehenengoz atea ireki nion batean. Nik arratoi bat ikusten dudanean izaten dudan erreakzioa izan zuen: izu deiadarra, eskua begien aurrean. Gure auzokoa zen, laguna, gizona, frantsesa, paraje hauetan lantzean behin piropro bat esaten zekien bakanetakoa. Egun hartan ile urdinak ikusi zizkidan, ikaratu egin zen. “Zuk ez dituzu, ala?”, galdetu nion. Hatz erakuslea ezpainen aurrean jarri zuen sekretua gordetzeko eskatuz: “Atera egiten ditut”.

Urte batzuk pasa dira ordutik, eta ugaritu egin dira nire ile urdinak. Lagun frantsesa urrun bizi da orain, eta ez nau ikusi behar. Beste batzuek ordea, egunero ikusten naute. Neuk ere ikusten dut neure burua egunero ispiluan, atzera bueltarik ez duen prozesuan sartuta.


Gainbeheraz idatzi zuen hemen Angel Errok duela aste batzuk. Gai potoloa da gainbehera; nik soilik bere alderdi fisikoari, estetikoari, begiratu nahi diot begietara ispilu aurrean. Arnasa sakon hartuz, bigarren begiratuan genero auzi batekin egiten dut topo. Eta genero auzi gehienetan gertatzen den bezala, ohiturakin hausteak eskatzen duen lanarekin. (Lana, pedagogia, solidaritatea, denbora...).

Follow your Nature, dio arropa marka baten aurtengo udaberri-udako publizitate kanpainaren esloganak. Mads Mikkelsen aktore danimarkarra da gizona modeloa, 50 urtetik gora ditu, kanpaina bereko emakumezko modeloak baino ia hogeita gehiago. Oso naturalak dira bien argazkiak, eta Mads Mikkelsen ez dio ile urdinak kalterik egiten. Barne oreka, sosegua, konfiantza azpimarratzen dute. Erronka zaila da, leunki esateko, hiriko afixetan irudi horren emakumezko baliokidea topatzea. Bestalde, falta zaizkigun irudi horiek produzitzea industriari dagokiola pentsatzeko bezain inozoa ere ez naiz.



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

Ohitura kontua besterik ez da, ez dut uste gizona hobeto zahartzen direnik. Gainbehera erabili baitut goian, baina zahartzeaz hitz egiteko eufemismotzat har daiteke kasu honetan. Gazte izateari utzi eta zahar bihurtu arteko bidean, gainbehera horretan, zahartze bilakaera horretan, nahi izanez gero, *heldutasuna* aurki genezake. Fruituetan, aldirik gozoena eta elikagarriena da. Susmoa dut sarritan gizona modu naturalagoan heldu izan direla aldi horretara. Eta naturaltasun horren puska bat oraindik irabazteko geratzen zaigula emakumeoi. (Adi, badaezpada ere errepikatu egingo dut alderdi fisikoaz ari naizela).

Milaka eta milaka gazte gerretan hiltzen ari diren bitartean, munduaren beste inguru batzuetan hasita daude pertsonengan zahartzaroa gelditu eta gazte bihurtzeko saiakerak egiten. Odol gazteari esker sagu zaharrak suspertzea posible dela frogatuta omen dago honez gero. Ez daukat bat ere argi noren eta zeren interesean ari diren ikertzen.

Gurea bataila txikia da, gizona boterea duten gizarte baten egiturekin talka egiten duena. Maitasun erromantikoak gizona eta emakumezkoen arteko amildegia handitu baino egiten ez duela uste duten feministek ez bezala, Eva Illouz soziologoak patriarkatua barrutik eraldatzeko indarra ere aitortzen dio maitasun horri. Maite gaituenak, maitasunak berezko dituen ezaugarrietatik abiatuta, garen bezala onartzen gaitu, gure hobe beharra bermatzen laguntzen digu. Finean, gure berdintasunerako borrok(et)an aliatua izateko erantzukizuna du.

Lehenengo, ispiluak bueltatzen digun irudia daukagu. Kanpoan, bakardadetik at, besteak bueltatzen diguten irudia heltzen zaigu. Besteak ere, ispilu ditugu baina. ■